
GLOBAL TRAINING Bekak 2023

DOKUMENTAZIOA

- ◆ NANaren fotokopia.
- ◆ Nortasun agirikoaren tamainako argazki bat, izen-abizenak atzealdean idatzita.
- ◆ Curriculum vitae gasteleraz eta ingelesez.
- ◆ Administrazio-egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan izatea frogatzen duen ziurtagiria, eskabidea aurkezten den unetik zenbatzen hasi eta gutxienez aurreko 12 hilabeteetan, edo epe txikiagoan ikasketak direla medio izangaiak Euskal Herritik kanpoan bizi izan badira.
- ◆ 1) Lortutako unibertsitate-tituluaren fotokopia konpultsatua, edo 2) titulua emateko eskubideak ordaindu izanaren frogagiria, edo 3) ikasketa-espeditetako nota, titulazioari dagokion proba orokorra gainditu izana edo/eta titulua lortzeko eskubideak ordaindu izana adierazten duela.
Atzerrian edo publikoak ez diren Espainiako zentroetan lortutako tituluak homologatuta egon beharko dute, eskabideak aurkezten diren unean.
- ◆ Egindako ikastaroen eta lanbide-esperientziaren ziurtagirien fotokopia konpultsatua. Ez dira kontuan hartuko eskabidea aurkezterakoan egiaztatu gabe dauden ikastaro edo lanbide eskarmentuak.
- ◆ Zinpeko aitortpena Aginduarekin bat etorritik (inprimakia eskabidearekin batera doa).

Frantsesaz edo ingelesaz bestelako hizkuntzaren batean idatzita dauden dokumentuak aurkezten badira, horien itzulpena ere aurkeztu beharko da EAEko edozein hizkuntza ofizialetan.

Hautatutako pertsonen paperean eskatuko zaie dokumentazioa, fotokopia konpultsatuan (Ganberara bidaliko dute dokumentazio ofizialarekin eta fotokopia konpultsatu batekin). Konpultsa Merkataritza Ganberan ere egin ahal izango da. Hautatutako pertsonak jatorrizkoa eta kopia aurkeztu beharko ditu).